

E Eskaera eskubidea

Eskaera eskubidea


Eskubide hori oinarritzotzat jotzen du Espainiako Konstituzioko 29. artikulua (arautua); beraz, herri agintea duen erakunde edo agintari ororen aurrean edozein pertsonak erabil dezake, naziotasunaren axolarik gabe.

Eskubide horren bitartez norberaren interes zilegizkoak babesteko bidea gauzatzen da alde batetik, eta bestetik herritarrek zeregin publikoetan esku hartzeko aukera jartzen da baita Gipuzkoako Foru Aldundian ere.



Eskaera eskubideen jabeak

Herritar eta elkarte juridiko guztiek, naziotasunaren axolarik gabe, erabil dezakete eskubide hori bakarka nahiz taldeka.



Hartzailea

Eskaera herri erakunde, administrazio edo aginteren aurrean egin daiteke, baita herri administrazioen mendeko edo babeseko elkarte eta erakundeetako zuzendaritza eta administrazio organoen aurrean ere. Betiere, eskaera zein bere eskumeneko gaien inguruan egin behar da.


Eskaeraren gaia

Eskaerak edozein gai edo gorabeheraren inguruan egin daitezke, hartzailearen eskumen esparruaren barruan, eta berdin dio eskaeragileari badagokio edo interes orokorreko auziren bat bada.

Gauzatzea

Eskaerak idatziz egin behar dira beti (bitarteko guztiak erabil daitezke, baita bide elektronikoa ere) eta alderdi

hauek jaso behar dira: gaia eta eskaera hartzailea; eskatzailearen nortasuna eta naziotasuna; eta jakinarazpenak bidaltzeko aukeratutako lekua edo bitartekoa. Taldeka egindako eskaerak eskatzaile guztiek izenpetu behar dituzte, sinadura bakoitzaren alboan izen-deiturak jarrita. Datuak isilpean gordetzea eska daiteke.



Idatziak aurkeztea

Eskaerak edozein edo bulegotan aurkez daitezke, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearen Legeak horretarako onartutakoan artean.

Bideratzea eta erantzutea

Eskaera bideratzea onartzen den orduko, eskumena duen agintariak edo organoak erantzun egin beharko du, eta erantzuna bidali hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera aurkeztu zen egunetik aurrera. Egindako eskaera ongi oinarrituta dagoela egiaztatzen baldin bada, eskumena duen agintariak edo organoak behar bezalako erabakiak hartu beharko ditu eskatutakoa azken burura eramateko.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa